

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak funtziona dezan ezinbestekoak dira funtsezko jarduerak. Jarduerak bi motatakoak izan daitezke, gure enpresaren esku dauden jarduerak eta beste enpresa baten esku dauden jarduerak. ZuBabestuz-en kasuan, jarduera guztiak gure menpe egongo dira.

Hasteko, gazteak gurekin harremanetan jarriko dira telefono edo “chat” bidez. Horrez gain, aurrez aurreko arreta pertsonala jasotzeko aukera ere izango dute, gure eta bezeroekiko harremana gehiago estutuz. Lan hau, Maddik beteko du.

Ondoren, Maddik gainontzeko langileoi kasuaren berri emango digu. Hura aztertu eta irtenbideak planteatuko ditugu, zerbitzu egokiena zein den interpretatuz. Gero, harekin harremanetan jarriko gara eta gure gomendioak eman.

Arazoa beste batzuen antzekoa bada talde terapia gomendatuko diogu. Kasu horretan, parte-hartzaileen artean hitzordu bat proposatuko da. Hezitzaileak bideratuko du bilera hori, Laidak hain zuzen ere. Bilera horretan gazte bakoitzak bere kezkak plazaratuko ditu eta denen artean arazoari konponbidea emango zaio. Bilera horiek astean behin izango dira, eta hitzordu batetik bestera Laidak partaide bakoitzaren jarraipena egingo du. Horrela, ea hobekuntzarik egon den somatu daiteke, eta hurrengo bilerarako proposamenak bildu.

Kirolarekin erlazionatutako arazoa bada, Josu arduratuko da gazte horren kasuaz; izan ere, Josuk badaki horrelako bizipenen aurrean nola jokatu. Horregatik, bera izango da pertsona hura lagunduko duena eta gomendioak emango dizkiona.

Horrez gain, noizean behin adituen hitzaldiak eskainiko ditugu. Psikologoekin harremanetan Josu jarriko da, eta bien artean hitzordua adostuko dute. Hark profesionalekin harremana mantenduko du, hitzorduak adostu eta ekintzen antolaketa koordinatzeko.

Behin data ezarrita, profesionala Laida eta Maddirekin harremanetan jarriko da. Elkarrekin hitzaldiaren nondik norakoak adostu, eta profesionalak beharko dituen baliabideak prestatuko dira.

Zerbitzu guztiak ondo funtzionatzen ari direla ziurtatzen Josu ibiliko da. Bezeroen balorazioak aztertuko ditu, hobekuntzak egiten dituelarik. Bestalde, kostuen eta irabazien kontrola eramango du, baita hornitzaileekin kontaktua mantendu ere. Finantzaketa alorra bere menpean egongo da.

Azkenik, publizitatearen gestioa Maddik egingo du. Instagram eta Tik Tok sare sozialetan enpresaren kontua oso aktibo matenduko du, gure zerbitzua ikusarazteko.